



ENPRESEN KONTSULTA FOROA

2021eko urriaren 5a

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDA:

1. Ongietorria ordezkarietara eta bileraren helburua.
2. Aurreko erabakien eta proiektuen berrikuspena.
3. Gauzatzeke dauden proiektuak eta proiektu berriak.
4. Proposamenak aztertzeke talde-hausnarketa.
5. Proposamenei buruzko gogoeta eta banakako puntuazioa.
6. Hurrengo urratsak: Kontraste Politikorako Mahaia (zehazteke).

BERTARATUAK: (% 81)

DEITUAK		BERTARATUAK	JOAN EZ DIRENAK	
			Justifikatuta	Justifikatu barik
Ostatuko ordezkaria	HUTSIK			
Taxien ordezkaria	José Ignacio López (Maiterekin batera)	X		
Kirol Aisialdiko ordezkaria	Nekane (Héctor Garcíaaren ordezkaria)	X		
Interpretazio Zentroen, Gidarien eta Bidaia Agentzien ordezkaria	Ainhoa Sarriegi	X		
Merkataritzaren arloko ordezkariak				
Getxo Enpresa	Amaia Lauzirika	X		
Romo Bizirik	Ainhoa Calderón	X		
Algortako Dendak	Amaia Sertutxa	X		
Ostalaritzako ordezkariak				
Bizkaiko Ostalaritza Elkartea	Héctor Sánchez		X	
Asohge	Jorge Alonso	X		
Romo Bizirik	Jon Morán			X
Getxo Enpresa	Desiré Yeste	X		
Getxoko Udala – Ekonomia Sustatzeko Arloa	Mirene Zabalgogezcoa		X	
	Sonia Urdiain	X		



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

	Sara de la Fuente	X		
--	-------------------	---	--	--

1.- Ongietorria ordezkarietara eta bileraren helburua.

Deialdia egin ondoren bertaratu diren batzarkide guztiei ongietorria eman zaie, eta bileraren helburua zein den gogorarazi da:

- ✓ Mahai sektorialekin proposatu dituzten ekintzak berrikustea; egungo egoera.
- ✓ Mahai sektorialekin 2022rako proposatu dituzten proiektuak azaltzea.
- ✓ Proposamenen talde-hausnarketa.
- ✓ Lehentasuna: proposamenen banakako puntuazioa.
- ✓ Hurrengo urratsak: Kontraste Politikorako Mahaia (data zehazteke dago; hasiera batean azarorako aurreikusita dago).

2.- Aurreko erabakien eta proiektuen berrikuspena.

Irailan egin diren mahai sektorialetan jaso diren ekintza "txikiak" berrikusi dira, Kontsulta Foroak horien guztien berri jakin dezaten, eta bai orain arte egin diren informazio-aurrerapenen berri ere.

a. *Telletxe taxi-geltokiaren egoera aztertzea: Gaintzako aparkalekuko obrak direla-eta estazionamendu-plazak murriztea, taxi-gidariei jarritako isunak...*

Udal teknikariek dagoeneko helarazi dizkiete gertakari horiek arlo eskudunei (ingeniaritzari eta udaltzaingoari), eta berrikuspen-fasean daude.

b. *Taxi-telefonogunerako emakidan dagoen udal lokala; kostua murrizteko aukera, ia merkatuko prezioan dagoelako.*

Gaia Ondare Arloari helarazi zaio, "alokairu" horren prezioa doitzeko aukera balora dezaten. Argitu da, gainera, ez dela tasa bat, udalerriko taxi-gidarien elkartek espazio hori erabiltzeko emakida bat baizik. Edonola ere, helburua kostu horiek murrizten saiatzea da, edo osterantzean, merkatu librean espazio ekonomikoagoa bilatzea.

c. *"Garrantzitsuena beti eskura" izeneko kanpainari dagozkion kreatibitateak birbidaltzea, horiek guztiak hedarazte aldera – 2. Kanpaina-olatuak: kanpainaren 2. fasearen inaktuak epe laburrago batean kontzentratzea baloratzea.*

Mahai guztietan adierazi zen kanpainak online eragin nahikoa sortu ez duelako sentazioa dagoela, eta, horrenbestez, publizitatea denbora gutxiagoan kontzentratzeko aukera aztertzea proposatu zitzaigun, kanpaina horri ikuspen handiagoa emate aldera.

Talde teknikoak horretan lan egin du eta kanpaina hori online eta offline indartuko da azaroaren 3tik 29ra bitartean. Halaber, urrian zehar, ordezkari eta elkarrekin kanpainari dagozkion kreatibitateen berri emango zaie, beraiek ere kanpaina hori beren komunikabideetan sustatzeko aukera izan dezaten.



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

Horrezaz gainera, Horrezaz gainera, argitu da kanpainarako kontratatu den publizitatea, "Erosketa programatikoa" motakoa, ez dela mugatzen udalaren sare sozialen kontua iragartzera, baizik eta hirugarrenen edo komunikabideen kontuetan izandako inpaktuak alderatzera, hala nola prentsa digitala, online telebista, etab. (Ikus xehetasuna 6. diapositiban).

d. Herritarrek terrazei buruz dituzten kexen bolumena partekatzea:

Ostalaritzako mahaian, *covid terrazak* zabaltzearen eta ezartzearen inguruan udal esparruan izapidetu diren kexen bolumena ezagutzeko eskatu zen. Alde horretatik, Udalaren "Abisuak, kexak eta iradokizunak" deritzon aplikazioaren bidez eta Udaltzaingoaren eguneroko gorabeheren zerrendaren bitartez, 7. eta 8. diapositibetan urtarrilaren 1etik urriaren 3ra arteko denbora-tarterako erakusten diren datuak eskuratu dira. Nabarmentzekoa da kexen ia % 50 Algorta auzotik datozela, eta % 40 herritarren gizalegearen aurkako jokabideengatik eta osasun-murrizketak ez errespetatzeagatik izan direla. Halaber, aipatu da kexen ehuneko handi bat establezimendu jakin batzuetan biltzen dela.

Ondorio orokorra da ezen, kexek kalean izan dezaketen oihartzuna gorabehera, ez dela kexen batez besteko handia gertatu, eta kexa horiek ez daudela covid terrazen erabilerarekin loturik.

Elkartek behin eta berriz errepikatzen dute pandemiari aurre egiteko ezarririk dauden arauak betetzen ez dituzten establezimenduen aurka jardun behar dela; Establezimendu horien identitatea ezagutzera eman dadila eskatzen dute, elkartek berek ere beren aldetik egoki diren jarduketak bidera ditzaten; izan ere, haien aburuz, establezimenduok kalte eragiten diete tokiko ostalaritzako profesionalik gehienek egiten duten lanari eta ahaleginei.

e. Ostalaritzaren arloko GetxoBonurako jarraipen bereziaren kanpaina:

Saltoki eta zerbitzuetarako GetxoBonuaren kasuan ez bezala, trukatu gabeko bonu asko hauteman ziren ostalaritzarako. Parte hartu duten ostalari gehienekin harremanetan jarri gara, eta ondorio hauek atera ditugu:

Ikusten denez, ostalari askok bonu gehiago saldu zituzten, baina artean ez zuten bonuok trukatzeko lana gauzatu. Horien artean aipatzekoak dira, besteak beste:

- **12 establezimenduk bonu guztiak salduta zituzten**, eta bat izan ezik, gainerakoak bonu gehiago jasotzeko prest daude.
- **10 establezimenduri bonuak geratzen zaizkie saltzeko**, baina **gehienak baikor daude** kanpaina itxi aurretik **bonuok saltzeko**. Hala, **3 baino ez daude prest** saltzeke dauden bonuak **gainerako establezimenduekin banatzeko**.
- Ez dugu gainerako establezimenduekin harremanetan jartzerik izan, hainbat zioengatik (oporrak direla-eta, aldi baterako itxita daudelako, ...)



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Bonuak artean trukatu ez izanaren arrazoiak honako hauek dira:

- ✓ Bonu guztiak saltzeko zain daude, horiek trukatzeko.
- ✓ Erabili gabeko bonuak dituzten bezeroak dituzte, eta horregatik dituzte trukatzeko.
- ✓ Ostalariak horretarako asterik ez izatea.
- ✓ Ekimenik eza, bonuak ostalarien enplegatuek sustatzeagatik.

Bonuak trukatzeko zailtasunei dagokienez, gehienek ez dute arazorik izaten. Hala ere, arestion aipatu diren arazoan artean, honako hauek aipatzen dira:

- ✓ Zuzenean teknikari baten laguntza eskatzen dute, eta, horrenbestez, bisitak egingo dira, ostalariei truke-prozesuan laguntze aldera.
- ✓ Bonu batzuk hondatuta edo tintarik gabe jasotzen dituzte, eta ezin dituzte trukatu. Ildo horri jarraikiz, paperezko bonuei dagokienez, paper termikoa ez erabiltzea gomendatu du Amaia Lauzirikak.
- ✓ Arazoren bat izan dute eta Getxo Enpresarekin konpontzen ari dira.

Gainerako establezimenduekin harremanetan jarri ondorik, datuak Ostalaritzako Mahaiarekin partekatuko dira, eta, zehazki, bonu erabilgarrien behin betiko zifra emango da, agortuta eta trukatuta dituzten ostalarien artean bonuok banatze aldera, baldin eta bonu gehiago jasotzeko interesa erakusten badute.

f. *Lonja Hutsen Proiektua - Merkataritza-mahaiak adierazi zuen ezen merkataritzakale horietan lehendik ezarririk dauden establezimenduen osagarri diren eta horien zuzeneko lehiakide ez diren negozioen irekiera sustatzea pentsatu behar dela:*

Gai horri dagokionez, eskaera hori oinarrien zirriborroan sartu dela jakinarazten da.

g. *Kirol Portuaren (Kirol Aisialdirako Mahaia) proiektuaren aurrerapenei buruzko informazio-bilera egiteko konpromisoa gogoraraztea:*

Udaleko teknikariek jakinarazi dute harremanetan daudela Puerto Deportivo-El Abra Sozietate Anonimoaren arduradunarekin, eta bilera noiz egingo den noiz jakinaraziko zaien zain daudela.

h. *Gabonetako kanpainaren barruan merkataritza-establezimenduetan banatzeko poltsak prestatzeko proposamena:*

Hainbat aurrekontu eskatu dira ekintzarekin aurrera jarraitzeko eta poltsa horiek abenduaren hasieran eskuartean eduki ahal izateko (merkatariek hala eskatu dute). Poltsak berrerabilgarriak izango dira, kotoizkoak, eta Bizkaian edo Estatuan fabrikatuak; gai honi dagokionez, atxikimendu-aldi bat ezarriko da Gabonetako kanpainarekin bat egin eta poltsa horiek eskuratu nahi dituzten establezimendu guztientzat.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

i. Genero-indarkeriaren aurkako eguna. Merkataritza arloan parte-hartze aktiboagoa izateko nahia helaraztea:

Ekimen hori berdintasun-teknikariari helarazi zaio, eta hagitx modu positiboan jaso du proposamena. Horretan lan egiteko, hiru elkarteetako kontaktuak eman zaizkio eta laster jasoko dute horren berri.

Amaia Sertutxak, Algortako Dendak elkartearen ordezkariak, genero indarkeriaren aurkako eguna Black Friday egiten den egun berean egiten dela adierazi du, horrek izan ditzakeen ondoreak kontuan hartzeko.

3.- Mahai sektorialek proposatu dituzten proiektuak azaltzea.

Era berean, iraileko azken mahai sektorialetan proposatu diren proiektu berriak azaldu dira, 2022an zehar gauzatzekoak direnak; proiektuok berauei dagozkien akta publikoetan zehatz-mehatz jasotzen dira:

- ***Turismoa sustatzeko kanpaina bat sortzea GETXO helmuga gisa kokatzeko asmoz, pandemiaren ondorioz gertatu den herritarren blokeoa hauste aldera. (2021/09/17, Ostatu-mahaia).***
- ***Gau Zuriaren ospakizunari berriro ekitea baloratzea, Udalerriko sektore guztiak ikusarazteko eta ekitaldian eraikin enblematikoen edo jarduera dinamizatzaileen argiztapena instalatzeko aukera sartzeko. (2021/09/23, Merkataritza-Mahaia).***
- ***'Getxo bihotzetik' izeneko proiektua - 2. fasea, enpresen sarearen jarraipena eta haien arteko sinergiak bermatzeko eta produktu eta zerbitzu berriak sortzeko (2021/09/17, Interpretazio Zentroen, Gidarien eta Bidaia Agentzien Mahaia).***
- ***Getxon erosketak egitea errazten duten "bilketa-guneak edota banaketa-guneak" irekitzea baloratzea: guneok saltokiek baino ordutegi zabalagoak izango dituzte publikoarentzat, eta erosketak zentralizatua egitea ahalbidetuko dute. Ekintza horren gidaritza edo jarraipena 2022ra begira egingo litzateke, eta ostalaritza-sektorea laguntzaile gisa sartzeko aukera ere balegoke, bilera honetan ostalariek eurek proposatu baitute hori (2021/09/23, Merkataritza-Mahaia).***
- ***2022ko GetxoBona, baldintza-proposamen berriak dakartzana, hala nola: haien erabilera pertsonako mugatzea, trukerako iraungitze-data ezartzea (2 hilabete baino gutxiago), merkealdietan bonuon erabilera mugatzea eta sektore bakoitzeko jarduerarik baxueneko aldiatarako hobestea (otsailetik martxoaren amaierara arte eta irailaren 2. hamabostalditik azaroaren amaierara arte). (Merkataritzaren, Kirol Aisialdiaren eta Taxiaren arloetako Mahaia).***
- ***2022ko Ostalaritzako GetxoBona, baldintza-proposamen berriak dakartzana, hala nola: bonuren baten zenbatekoa murriztea (tabernei eta kafetegiei mesede egite***



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

aldera), bonua erabiltzeko araudi bateratua ezartzea (bonua osorik kontsumitzea eta ez zatikatzea), erosketa bezeroaren kontura izatea (ostalariak ez du eskaintzen), eta jarduerarik baxueneko aldietarako hobestea (otsailetik Aste Santura arte eta martxoaren amaierara arte eta irailaren 2. hamabostalditik azaroaren amaierara arte), eta pertsona bakoitzak erosten duen bonu-kopurua mugatzea. (2021/09/16, Ostalaritza-Mahaia).

Sektoreak, gainera, bonuari beste izen bat ematea proposatu du, GetxoBonutik bereizte aldera. Baldintza berri guztiak finkatzeko, berariazko bilera bat antolatuko da, eta Hector Sanchez Bizkaiko Ostalarien Elkarteko presidentea bertan izateko ahaleginak egingo dira, hark aholkuak eman ditzan eta Bilboko Ostalaritzako Bonuen arloan izandako esperientziaren emaitzak ere jakinaraz ditzan.

Getxon gauzatzen edota eskatzen den bonuen balidazioaren portzentajea handia dela komentatu da, beste administrazio batzuen bonuen ausazko balidazioaren aldean: % 10 Bilbon, barbarako; alderdi hori berrikusi egingo da heldu diren kanpainei begira.

- ***Taxien udal ordenantza/araudia eguneratzea, haren edukia zaharkituta geratu baita. (2021/09/14, Taxi-Mahaia).***

Zerbitzu Orokorretako teknikariarekin (Barne Araubideko Saila) harremanetan jarri gara proposamen hori eta taxien elkarteak aurkeztu duen publizitate-proiektuaren egoera aztertze aldera. Era berean, Jose Ignacio Lópezek bilera horretan jorratu beharreko beste gai bat ere gehitu du: malgua izatea taxien flotaren kolorearekin; izan ere, ez da kontuan hartu marka askok ez dutela zilar-grisik ibilgailu elektrikoetan edo ibilgailu egokituetan, baina badutela gris ilunagoa.

- ***Korridore berde bat ezartzea Bolueko hezegunearen, Lamiakoko ibarraren eta Astrabuduko ibarraren artean, hegaztien joan-etorri handiagoa erraztuko lukeena, bai eta gune bat berroneratzea ere, aisialdirako espazio berde gisa, herritarrentzat eta bisitariarentzat. (2021/09/17, Interpretazio Zentroen, Gidarien eta Bidaia Agentzien Mahaia).***

4.- Proposamenen talde-hausnarketa:

Proposamen guztiak taldeka berrikusi eta iruzkindu ondorik, honako galdera hauek egin dira, ikuspegi orokor bat emateko, ondoren proposamen horiek lehenesteari begira:

- Proiektuak eragin positiboa al du sektore batean edo sektore batzuetan?
- Proiektuak eragin positiboa al du Udallerri osoan?
- Tokiko zenbat enpresa izan daitezke proiektuaren onuradun?
- Jasangarria da?



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

5.- Lehenetasuna: proposamenen banakako puntuazioa:

Proposamenak banan-banan puntuatzeko, puntuazio-metodologia azaltzen da: 1etik 3ra puntuatu behar da proposamen bakoitza (1 da baliorik handiena duena eta 3, berriz, baliorik txikiena duena).

Aurreko saioetan lehenesteko dauden proposamenen bat zuzenean baztertu nahi izanez gero, bertaratutakoei jakinarazi zaie ezen kasu horretan 0 puntuazioaren bidez adierazi behar dela.

Horrela, ordezkari bakoitzak proposamen bakoitza puntuatzen du, banaka.

Ondorik, Ekonomia Sustatzeko Arloko talde teknikoari ematen zaizkio, lehenesten diren proposamenen zerrenda itzul dezan, beraien puntuazioak oinarri hartuta eta betiere modu anonimoan jardunik (1. eranskina).

6.- Hurrengo urratsak: Kontraste politikorako Mahaia:

Sektoreko ordezkariari jakinarazi zaie hurrengo Kontraste Politikorako Mahaia azaroan egingo dela, eta egun zehatza zehazteke dagoela.

Hurrengo Kontraste Politikorako Mahaiak prestatu eta bizkortze aldera, bertaratutakoek bi proposamen egin dituzte:

1. Udaleko politikarien eta teknikarien arteko aurretiazko saio bat egitea, proiektuak zehatz-mehatz azaltzeko eta aurkezteko, alde aurreko gutxieneko informazioa dutela bermatu eta, horrela, Kontrasterako Mahaiak arintze aldera.
2. Proposamenen defentsa lantzeko saio bat ezartzea (ostalaritzako ordezkariak proposatutakoa).

Beste edozein gairi buruz, Enpresen Kontsulta Foroaren helbide elektronikoa ematen da: foroconsultivodeempresas@getxo.eus

ENPRESEN KONTSULTA FOROAREN ERABAKIAK (2021/10/05):

ERABAKIAK / EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1.- Aktaren zirriborroa eta proposamenak lehenestearen emaitza bidaltzea.	Udal teknikariak	Bilera egiten den egunetik aurrera



I. ERANSKINA: LEHENETSITAKO PROPOSAMENEN ZERRENDA

ENPRESEN AHOLKU FORUAK LEHENETSITAKO MAHAI SEKTORIALEN PROPOSAMENAK			BATEZ BESTEKO BALORAZI OA // VALORACI ÓN MEDIA
RELACIÓN DE PROPUESTAS SECTORIALES PRIORIZADAS POR EL FORO CONSULTIVO DE EMPRESAS			
REF. PUNTAZIOA / PUNTUACIÓN: 1 - 3			
1.-Gehieneko Lehenetasuna / Prioridad Máxima			
2.-Lehenetasun Ertainekoa / Prioridad Media			
3.-Lehenetasun Txikia / Prioridad Baja			
1	FORU 09/2021	Getxo Bono 2022, baldintza proposamen berriekin, esate baterako: erabilera pertsonaka mugatzea, trukerako iraungitze-data, erabilera mugatzea sektore bakoitzeko "haranean" – Otsaila/martxoa eta 2. hamabostaldian iraila/azaroa, eta merkealdi-garaian ez erabiltzea.	1,3
2	FORU 09/2021	Taxien udal ordenantza/araudia eguneratzea, edukia iraungita geratu baita.	1,3
3	FORU 09/2021	Getxo Ostalaritza 2022 bonua, baldintza-proposamen berriekin, hala nola: bonuren baten zenbatekoa murriztea (taberna eta kafetegiei mesede egitea), bonua erabiltzeko araudi bateratua (osorik kontsumitzea eta ez zatitzea), erosketa bezeroaren kontura izatea (ostalaritzak ez du halakorik eskaintzen), bailarako denboraldietan zentratuta (otsailetik Aste Santura eta irailetik azaroaren amaierara bitarteko 2. hamabostalditik pertsonara bitarteko bonuak erostea).	1,5
4	FORU 09/2021	Turismoa sustatzeko kanpaina bat sortzea GETXO helmuga gisa kokatzeko, pandemiaren ondorioz herritarren blokeoa hausteko.	1,5
5	FORU 09/2021	Getxo Bihotzetik proiektua - 2. fasea; < Getxo Insiders> enpresa-sarearen jarraitutasuna eta horien arteko sinergiak, produktu eta zerbitzu berrien sorrera bermatzeko.	1,7
6	FORU 09/2021	Gau Zuriaren ospakizunari berriro ekitea baloratu.	1,7
7	FORU 09/2021	Getxon erosketa erraztuko duen "bilketa- edota banaketa-guneen" irekiera baloratzea: saltokiak baino ordutegi zabalagoekin, eta erosketa zentralizatuaren bilketa aurreikusiko duena.	2,4
8	FORU 09/2021	Bolueko hezegunearen, Lamiakoko ibarraren eta Astrabuduako ibarraren artean korridore berde bat ezartzea, hegaztien joan-etorri handiagoa erraztuko lukeena, eta gune bat berroneratzea, herritarrentzako eta bisitariarentzako aisialdirako berdegune gisa.	2,6